

Espediente mota: Administrazio kontratazioa

Kontratua: *Geurien be bai* egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratua, prozedura ireki bidezkoa. 2009-2011 aldia.

Espediente zenbakia: 61-1

**GEURIEN BE BAI EGITASMOA KUDEATZEKO ZERBITZU
KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK.
PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO ESLEIPENA**

1. XEDEA:

Bermeoko enpresetan eta elkarteetan batetik eta kirol arloan bestetik, euskararen erabilera sustatu eta euskara planak egiteko zerbitzua ematea, 2009-2011 aldian.

2. HELBURUAK:

- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten enpresetan orain arte egindako lanaren ondorioz sinatu diren hitzarmenetan zehaztutako helburuak lortzeko euskara planak abiatzea urtero Bermeoko enpresa bitan, hain zuzen, diagnostikoa eta planaren diseinua egitea.
- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten eta urteko helburuak betetzen dituzten enpresekin, elkarteekin eta merkataritza arloko enpresekin sentsibilizazio eta komunikazio lana egitea.
- Enpresek, elkarteek eta merkataritza arloko enpresek hitzartutako helburuen jarraipena egitea, euskaraz jardun dezaten baliabideak eskaintzea, urtez urteko egindako lana ebaluatzea eta hobetzeko neurriak proposatzea.
- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten eta urteko helburuak betetzen dituzten enpresei, elkartei eta merkataritza arloko enpresei, egindako urteroko lana ekitaldi publikoan aitortzea.
- Kirolean, Udalaren Kirol Patronatuarekin elkarlanean, Bermeon dagoen egoeraren diagnostikoa egitea, euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza helburuak adostea, eragileak sentsibilizatzea eta



entrenatzaileen behar dituzten baliabideak proposatzea, baita lan horien guztien jarraipena egin eta ebaluatzea.

- Erakunde publikoek *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten eragileentzako eskaintzen dituzten laguntzen eta onuren berri ematea eta horiek erabiltzeko modua izan dezaten erraztasunak ematea,.

3. LANAREN EZAUGARRIAK:

- *Geurien be bai* egitasmoan orain arte egindako lanean beste urrats bat emateko beharra ondoriozta daiteke, eta ondoren adierazitako balorazioak gogoan izanda diseinatuko da egitasmoa, hiru lan-ildo nagusien arabera, enpresei dagokiena, kirol arloari dagokiona eta urteko lana aitortzekoa.
- Hona gogoan hartu beharreko balorazioak:
 - Elkarte askotan helburuak betetzat eman daitezke. Behar dituzten laguntza, aholkua edo baliabideak, Udalaren Euskara Sailaren bitartez lor ditzakete eta honenbestez, beste lan berezirik egiteko premiarik ez dago.
 - Kirol arloan, ostera, helburua ez da bete eta euskararen erabilera sustatzeko sakonago lan egin beharra dago, batetik, Kirol Patronatuarekin batera elkarlanean aritzea ezinbestekoa da eta bestetik, kirola osotasunean hartu eta lan planteamendu orokorrean txertatu beharra dago. Horregatik, bada, kirol arlorako plan orokor bat diseinatu behar da, datozen urteetan arlo honi behar duen arreta eskaintzeko.
 - Enpresei dagokienez, oinarrizko konpromisoez haratago lan egin beharra dagoela ondorioztatu da, eta urtero gehitu behar dira diagnostikoa eta planaren diseinua egiten dituen enpresa kopurua.
 - *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten elkarte eta enpresei egindako lana publikoki aitortzeak garrantzia badauka, beti ere, zehaztutako helburuen bete badira eta urte horretan aurrera-pausuren bat eman badute adostutako hizkuntza-helburuetan.
 - Arrain Azokako urteroko ekitaldi publikoan egiten den aitormena merkataritza arloari zabaldu behar zaiola ondorioztatu da, izan ere, arlo honetako eragileek hainbat urtetan euskararen erabilera sustatu egin dute euren establezimenduetan eta egindako ahaleginari ez zaio tamainako aitormen publikorik egin.



- *Geurien be bai* egitasmoan parte hartzen duten elkarte eta enpresak sentzibilizatzea, eurekin komunikazioa izatea eta baliabideak eskaintzea badira ere egitasmoaren arrakastaren giltzak eta langintza horretan ere jarraitzea komeni da.

- Lan horiek guztiak Bermeoko Udaleko Euskara Sailaren zuzendaritzapean egingo dira, eta enpresa esleipenduna behar den guztietan batzartuko da Euskara Sailaren arduradunekin eta Euskararen Aholku Batzordearen gomendioak gogoan izanda, lanen jarraipena egin ahal izateko.

- *Geurien be bai* egitasmoaren komunikazio lanak sortuko dituen gastuak zerbitzu kontratu honetatik kanpo egingo dira.

4. AUKERAKETA IRIZPIDEAK:

- Lan proiektuen egokitasuna helburuekiko. %60

- Eskaintza ekonomikoa. %40

Bermeon, 2008ko urriaren 14an

